

## I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 823/2014 Foru Agindua, abenduaren 19koa, onartzen duena 034 eredua, "Telekomunikazio, irradi eta telebista zerbitzuei nahiz baliabide elektronikoen bidez eskaintzen diren zerbitzuei balio erantsiaren gaineko zergan aplikagarriak zaizkien araubide berezietako eragiketak hasi, aldatu edo uzteko aitortpena"rena**

Kontseiluaren 2008ko otsailaren 12ko 2008/8/EE Zuzentarauak aldatu egin zuen 2006/112/EE Zuzentaraia, zerbitzuak emateko lekuari dagokionez, eta berridatzi egin zuen, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Kontseiluaren 2006ko azaroaren 28ko 2006/112/EE Zuzentaraia XII. tituluko 6. kapitulua: "EBn ezarrita ez dauden enpresaburu edo profesionalak enpresaburuak edo profesionalak izan ez arren halakotzat jarduten duten hartzaileei egiten dizkieten telekomunikazio, irradi eta telebista zerbitzuen nahiz baliabide elektronikoez egiten dizkieten zerbitzuen araubide berezia" (azken zuzentaraia hori balio erantsiaren gaineko zergaren sistema erkideari buruzkoa da).

Araubide berezi horien transposizioa egiteko gehieneko epea 2015eko urtarrilaren 1ean amaituko da. Nolanahi ere, Kontseiluaren 2012ko urriaren 9ko 967/2012 (EB) Erregelamendua 2. artikulua –erregelamendu horrek 282/2011 (EB) Exekuzio Erregelamendua aldatzen du, EBn ezarrita ez dauden subjektu pasiboek subjektu pasiboak ez diren pertsonaiei egiten dizkieten telekomunikazio, irradi eta telebista zerbitzuen nahiz baliabide elektronikoez egiten dizkieten zerbitzuen araubide berezietan aplikazioa erraztearren eta 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera emandako zerbitzuak araubideon barruan sartzeko aukera ematearren, ezartzen du baimena eman behar zaiela EBn ezarrita ez dauden enpresaburu edo profesionalen beren erregistro datuak (2006/112/EE Zuzentaraia 360. edo 369 quater artikuluen arabera) 2014ko urriaren 1etik aurrera aurkeztu ahal izan ditzaten, identifikazioko estatu kide moduan izendatu duten estatu kidean.

Ondorio horietarako, subjektu pasiboak bere jardura ekonomikoaren egoitza ezarrita duen lurraldea joko da identifikazioko estatu kideztat, edo, bere jardura ekonomikoaren egoitza Batasunean ezarrita ez badu, establezimendu iraunkor bat dueneko estatu kidea.

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 46. artikuluan xedatutakoaren arabera, zentsu aitortpenak egin behar dituen pertsonaren edo erakundearen egoitza fiskala non dagoen, hango Administrazioari aurkeztu behar zaizkio aitortpen horiek, bakoitzaren arautegiaren arabera.

Horren ondorioz, formulario bat onartu behar da enpresaburu edo profesional hauek erregistratu ahal izateko, hain zuzen: 2006/112/EE Zuzentaraia XII. tituluko 6. kapituluko 2. eta 3. ataletan aurreikusten diren araubide bereziak aplikatzea erabakitzen dutenak eta, gainera, identifikazioko leku moduan Arabako Lurralde Historikoa aukeratu dutenak, han dutelako beren jardura ekonomikoaren egoitza, edo establezimendu iraunkor bat edo gehiago.

Araubide horietako eragiketak hasi, aldatu edo uzteko aitortpena egiteko eskatzen diren identifikazio datuak Batzordearen 2012ko irailaren 13ko 815/2012 (EB) Exekuzio Erregelamendua I. eta II. eranskinetan jasota daude –exekuzio erregelamendu horren bidez, Kontseiluaren 904/2010 (EB) Erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezarri ziren–.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

## XEDATZEN DUT

**1. artikulua. 034 eredia onartzea**

Onartzen da 034 eredia, "Telekomunikazio, irrati eta telebista zerbitzuei nahiz baliabide elektronikoen bidez eskaintzen diren zerbitzuei balio erantsiaren gaineko zergan aplikagarriak zaizkien araubide berezietako eragiketak hasi, aldatu edo uzteko aitorpena"rena. Foru agindu honen eranskinean dago.

**2. artikulua. 034 eredia aurkeztu behar dutenak**

Honako hauek aurkeztu behar dute 034 eredia, telekomunikazio, irrati eta telebista zerbitzuei nahiz baliabide elektronikoen egiten diren zerbitzuei aplikagarriak zaizkien araubide berezietan jasotako eragiketak hasi, aldatu edo uzten dituztela adierazteko: Erkidegoan ezarrita egon arren, kontsumoko estatu kidean (estatuok Kontseiluaren 2006/112/EE Zuzentarauaren 369 bis.1) artikuluan definitzen dira) ezarrita ez dauden enpresaburu edo profesionalak, telekomunikazio, irrati eta telebista zerbitzuei nahiz baliabide elektronikoen egiten diren zerbitzuei aplikagarriak zaizkien araubide berezietan sartuta daudenak edo sartu nahi dutenak eta, gainera, identifikazioko leku moduan Arabako Lurralde Historikoa aukeratzen dutenak edo aukeratu behar dutenak, han dutelako beren jarduera ekonomikoaren egoitza edo establezimendu iraunkor bat edo gehiago.

**3. artikulua. 034 eredia aurkezteko modua**

034 eredia paperezko inprimakian aurkeztuko da. Inprimakia soilik Interneten eskuratu daiteke, honako helbide honetan: [www.alava.net](http://www.alava.net), Ogasuna-Eredu eta inprimakiak.

**4. artikulua. 034 eredia aurkezteko lekua**

034 zentsu ereduaren paperezko inprimakia honela aurkez daiteke:

a) Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren bulego batera joanda.

Aitorpenaren bi ale aurkezten badira, interesdunari zigilua duen kopia itzuliko zaio edo, hala badagokio, aurkezpena egiaztatzen duen eginbidea.

b) Posta arruntez edo posta ziurtatuz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren Gasteizko bulegora bidalita.

Aitorpena aurkeztu izana egiaztatzen duen eginbidea lortu ahal izateko, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren bulego batera joanda aurkeztu behar da aitorpena.

**5. artikulua. Hasteko aitorpena**

Enpresaburu edo profesionalak, 034 eredia erabiliz, araubide berezi horietakoren bat duten eragiketak egiten hasteko aitorpena Zerga Administrazioari aurkezten dion hiruhilekoaren hurrengo hiruhileko naturaleko lehenengo egunetik hasiko da aplikatzen araubide berezia.

Nolanahi ere, araubide berezi horretan sartutako zerbitzuak 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera ematen badira lehenengoz, baina aurreko lerroaldean ezarritako dataren aurretik, bada, orduan, zerbitzua lehenengoz ematen den egunetik aurrera aplikatuko da araubide berezia, baldin eta enpresaburu edo profesionalak -034 eredia erabiliz- araubide hori aplikatuko zaien zerbitzuei buruzko informazioa aurkezten badiu Zerga Administrazioari, beranduen jota zerbitzua lehenengoz ematen den egunaren hurrengo hileko hamargarren eguna baino lehen.

**6. artikulua. Aldatzeko aitorpena**

1. Enpresaburu edo profesionalak Zerga Administrazioari jakinarazi behar dizkio kasuan kasuko araubide berezian sartutako eragiketak hasteko aitorpenean emandako informazioan izandako aldaketa guztiak, beranduen jota aldaketa gertatu den hilaren hurrengo hileko hamargarren eguna baino lehen.

2. Enpresaburu edo profesionalak identifikazioko estatu kidea aldatzen badu, berriz, aldaketa horrek eragindako estatu kide biei eman behar die aldaketaren berri, beranduen jota aldaketa gertatu den hilaren hurrengo hileko hamargarren eguna baino lehen.

3. Aldaketa gauzatzeko 034 eredia bete behar da.

#### **7. artikulua. Araubidea uzteko aitorpena**

1. Araubide berezietako baten bat erabiltzeari utzi nahi dion enpresaburu edo profesionalak bere erabakiaren berri eman behar dio Zerga Administrazioari, beranduen jota araubidea erabiltzeari utziko zaion hiruhilekoaren aurreko hiruhileko naturala amaitu baino hamabost egun lehenago.

2. Enpresaburu edo profesionalak informazio hau eman behar du, beranduen jota hurrengo hileko hamargarren eguna baino lehen:

a) Araubide berezian jasotako jarduerak egiteari utziko dion.

b) Jarduerak aldatuko dituen, halako molde ez dagoeneko ez dituen beteko araubide berezia erabiltzeko beharrezkoak diren baldintzak.

3. Araubide berezia uzteko aitorpena 034 eredia betez egin behar da.


#### **AZKEN XEDAPENA**

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 19a

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*  
**AITOR URIBESALGO LORENZO**

*Ogasun zuzendaria*  
**JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO**

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava</p> <p>www.alava.net</p>	<p><b>Telekomunikazio, irradi eta telebista zerbitzuei nahiz baliabide elektronikoez egiten diren zerbitzuei Balio Erantsiaren gaineko Zergan aplikagarriak zaizkien araubide berezietan jasotako eragiketak hasteko, aldatzeko edo uzteko adierazpena</b></p> <p><b>BATASUNEKO ARAUBIDEA</b></p>	<b>034</b>
		1.Orialdea

Ogasun, Finantza  
eta Aurrekontu Saila

Departamento de Hacienda,  
Finanzas y Presupuestos

<b>1 AITORZAILEA</b>		
IFZa	Abizenak eta izena edo Sozietatearen izena	
Izen komertziala		
Erakunde-talde batean sartuta	Atzerriko egoitzaren herrialdea, EBko enpresa bat ez bada	
BAI <input type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/>	Herrialdearen kodea	Herrialdea

<b>2 AURKEZTEKO ARRAZOIA</b>		
Hasiera .....	Aldaketa .....	Uztea .....

**HASTEKO EDO ALDATZEKO ADIERAZPENA**


<b>3 HARREMANETARAKO DATUAK</b>					
Helbide elektronikoa					
Web orria					
Harremanetarako pertsona				Telefonoa	
Kalea	Zenbakia/Blokea/Ataria	Eskailera	Solairua	Atea	
Hiria	Posta kodea (ZIP)	Probintzia/Lurralde Histor./Estatua	Herrialdearen kodea		

<b>4 BANKUKO DATUAK</b>	
IBANa	Bankua (BIC)
Titularra	

<b>5 IDENTIFIKAZIO-HERRIALDEA ALDATZEA</b>	
Herrialdearen kodea	Aurreko herrialdeko identifikazio- zenbakia (NIVA/NOE)
	NIVA                      NOE

<b>6 AURREKO ERAKIKETEN JAKINARAZPENA</b>	
¿Egin al duzu araubide berezian jasotako eragiketarik edo horrelako eragiketarik egingo duzu?    BAI <input type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/>	
Horrela bada, adierazi zein izan zen eragiketen hasiera-data: .....	

RE 14/2012

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.alava.net</p>	<p><b>Telekomunikazio, irradi eta telebista zerbitzuei nahiz baliabide elektronikoen egiten diren zerbitzuei Balio Erantsiaren gaineko Zergan aplikagarriak zaizkien araubide berezietan jasotako eragiketak hasteko, aldatzeko edo uzteko adierazpena</b></p> <p><b>BATASUNEKO ARAUBIDEA</b></p>	<h1>034</h1>
		<p>2.Orialdea</p>

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila

Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

IFZa	Abizenak eta izena edo Sozietatearen izena
------	--

**7 ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRA EBKO BESTE HERRIALDE BATZUETAN**

NIVA	Beste identifikazio-kode batzuk			
Abizenak eta izena edo Sozietatearen izena			Telefonoa	
Kalea	Zenbakia/Blokea/Ataria	Eskailera	Solairua	Atea
Hiria	Posta kodea (ZIP)	Probintzia/Lurralde Histor./Estatua	Herrialdearen kodea	

NIVA	Beste identifikazio-kode batzuk			
Abizenak eta izena edo Sozietatearen izena			Telefonoa	
Kalea	Zenbakia/Blokea/Ataria	Eskailera	Solairua	Atea
Hiria	Posta kodea (ZIP)	Probintzia/Lurralde Histor./Estatua	Herrialdearen kodea	

NIVA	Beste identifikazio-kode batzuk			
Abizenak eta izena edo Sozietatearen izena			Telefonoa	
Kalea	Zenbakia/Blokea/Ataria	Eskailera	Solairua	Atea
Hiria	Posta kodea (ZIP)	Probintzia/Lurralde Histor./Estatua	Herrialdearen kodea	


**8 EBKO BESTE HERRIALDE BATZUETAN EZARRITA EZ DAUDEN SUBJEKTU PASIBOEN IDENTIFIKAZIOA**

Herrialdearen kodea	NIVA
Herrialdearen kodea	NIVA
Herrialdearen kodea	NIVA

**9 AURRETIK SARTUTA ARAUBIDE BEREZIAN**

Araubidea	Herrialdearen kodea	NIVA	NOE
Araubidea	Herrialdearen kodea	NIVA	NOE
Araubidea	Herrialdearen kodea	NIVA	NOE

RE 14/2013

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava</p> <p>www.alava.net</p>	<p><b>Telekomunikazio, irrati eta telebista zerbitzuei nahiz baliabide elektronikoez egiten diren zerbitzuei Balio Erantsiaren gaineko Zergan aplikagarriak zaizkien araubide berezietan jasotako eragiketak hasteko, aldatzeko edo uzteko adierazpena</b></p> <p><b>BATASUNEKO ARAUBIDEA</b></p>	<b>034</b>
		3.Orialdea

Ogasun, Finantza  
eta Aurrekontu Saila

Departamento de Hacienda,  
Finanzas y Presupuestos

IFZa	Abizenak eta izena edo Sozietatearen izena
------	--

#### UZTEKO ADIERAZPENA

#### 1 BAJAREN DATA ETA ARRAZIOA

Araubide berezian jasotako zerbitzuak emateari uztea

Identifikazioko estatu kidea aldatzea. Xehetasuna:

Borondatezkoa

Establezimenduak jarduna uzteagatik, egun honetatik aurrera: .....

Egoitza lekuz aldatzeagatik, egun honetatik aurrera: .....

Adierazi zein den zure NIVA herrialde hartan: .....

Egun honetatik aurrera ez ditu betetzen araubideko baldintzak: .....

Borondatezko

Data eta sinadura